

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

ITZULPENA¹

Araua: 398/2009 (EE) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2009ko apirilaren 23koa, fauna eta flora basatiko espezieak salerosketa kontrolatuz babesteari buruzko Batzordearen 338/97 (EE) Erregelamendua aldatzen duena, Batzordeari esleitutako betearazpen-eskumenei dagokienez.

Ondorengo itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiriarekin.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta honek ez du inolako balio juridikorik.

¹ Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratua, hauxe da:
«REGLAMENTO (CE) N.º 398/2009 DEL PARLAMENTO EUROPEO Y DEL CONSEJO, de 23 de abril de 2009, que modifica el Reglamento (CE) n.º 338/97 del Consejo relativo a la protección de especies de la fauna y flora silvestres mediante el control de su comercio en lo relativo a las competencias de ejecución atribuidas a la Comisión» (Diario Oficial de la Unión Europea, L 126 de 21/05/2009)

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

398/2009 (EE) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena,

2009ko apirilaren 23koa,

fauna eta flora basatiko espezieak salerosketa kontrolatuz babesteari buruzko Batzordearen 338/97 (EE) Erregelamendua aldatzen duena, Batzordeari esleitutako betearazpen-eskumenei dagokienez.

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR BATASUNEKO KONTSEILUAK,

Europar Batasuna eratzen duen Trataturia, eta, bereziki, haren 175. artikulua 1. paragrafoa aztertu dute,

Batzordearen proposamena aztertu dute,

Europako Ekonomia eta Gizarte Komitearen irizpena aztertu dute [1],

Eskualdeetako Komiteari aurrez kontsulta egin zaio,

Tratatuko 251. artikulua [2] araututako prozedurarekin bat,

Hauek kontuan hartu dituzte:

(1) Kontseiluaren 338/97/EE Erregelamendua [3] arautzen du, Batzordeari esleitutako betearazpen-eskumenak gauzatzeko prozedurak ezartzeari buruzko 1999ko ekainaren 28ko Kontseiluaren 1999/468/EE Erabakiari jarraituz [4], neurri zehatz batzuk hartu behar direla.

(2) Kontseiluaren 2006/512/EE erabakiak [5], 1999/468/EE Erabakia aldatu zuen, eta, horrekin batera, kontrol-dun arautze-prozedura bat ezarri zuen, Trataturia 251. artikulua jarraiki hartutako oinarri-egintzetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatzeko, elementu horietako batzuk kentzeko edo egintzan funtsezkoak ez diren elementu berriak sartzeko helburua duten irismen orokorreko neurriak hartzeko.

(3) 2006/512/EE Erabakiari buruz Europako Parlamentuak, Kontseiluak eta Batzordeak egindako adierazpenak [6] xedatzen duenez, Trataturia 251. artikuluan ezarritako jarraituz erabakitako egintzetan kontrol-dun arautze-prozedura aplikatu ahal izateko, egintza horiek aplikagarriak diren prozeduretarako egokituko dira.

(4) Komeni da, bereziki, Batzordeari eskumenak ematea, faunaren eta floraren salerosketaren alorrean zenbait neurri hartzea, 338/97/EE Erregelamenduaren eranskinetan zenbait aldaketa egin ditzan, eta Arriskuan dauden Espezieen Nazioarteko Salmentaren kontrolerako Hitzarmenean (CITES) (hemendik aurrera "Hitzarmena" deituko dioguna) parte hartu zuten aldean ebazpenak, Hitzarmen Komite iraunkorraren erabakiak eta gomendioak eta Hitzarmenaren Idazkaritzaren gomendioak aplikatzeko neurri osagarriak hartzea. Neurri horien aplikazio-esparrua orokorra denez, eta adierazitako neurrien xedea 338/97/EE Erregelamenduko elementu ez-funtsezkoak aldatzea, edota, funtsezkoak ez diren elementu berriak sartzea, 338/97/EE Erregelamendua osatzea denez, neurri horiek 1999/468/EE Erabakiaren 5 bis artikulua xedatutako kontrol-dun arautze-prozedura betetzeko ezarri behar dira.

(5) Eraginkortasuna indartzeko, laburtu egin behar dira kontrol-dun arautze-prozeduren esparruan ezartzen diren epeak 338/97/EE Erregelamenduaren A-tik D-rako eranskinetan egindako aldaketak aplikatzeko, modu horretara Hitzarmeneko eranskinen aldaketak indarrean jarri baino lehen aplikatu ahal izango baitira.

(6) Beraz, 338/97/EE Erregelamenduaren aldatu behar da, adierazitako ildoari jarraituz.

HONAKO ERREGELAMENDU HAU EMAN DUTE:

1. artikulua

Aldaketak

338/97 (EE) Erregelamendua jarraian adierazten den moduan aldatu da:

398/2009 (EE) Erregelamendua (EBren Egunkari Ofiziala, L 126 2009/05/21ekoa)

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

1) 4. artikulua honela aldatu da:

a) 6. paragrafoko sarrerako esaldiaren ordean ondoko testua idatziko da:

"6. Kaltetutako jatorrizko herrialdeei kontsultatuta, 18. artikuluko 2. paragrafoan xedatzen den arautze-prozedurari jarraituz, eta Zientzia Ikusapeneko Taldearen irizpena kontuan hartuta, Batzordeak izaera orokorra duten mugaketak edo jatorrizko zenbait herrialderekin zerikusia duten mugaketak ezar ditzake espezimen horiek Erkidegoan sartzerako garaian:"

b) 7. paragrafoaren ordean, ondoko testu hau jarriko da:

"7. Erkidegoan sartzerakoan ontzi-aldaketarik, hegazkin-aldaketarik edo tren-aldaketarik egin behar izanez gero, salbuespenak ezarriko zaizkio 1. paragrafotik 4. paragrafoa aipatzen diren sarrerarako muga-aduanan aurkeztu beharreko inportaziorako agiriak egiaztatu eta aurkezteko betebeharre; hala, agirien egiaztapena eta aurkezpena 12. artikuluko 1. paragrafoan xedatutakoari jarraiki izendatutako beste aduana batean egin ahal izango dira.

Erregelamendua osatuz funtsezkoak ez diren elementuak aldatzeko neurri horiek 18. artikuluko 3. paragrafoan aurreikusitako kontrol-dun arautze-prozedurari jarraiki hartu behar dira".

2) 5. artikulua honela aldatuko da:

b) 5. paragrafoaren ordean, ondoko testu hau jarriko da:

"5. Erkidegoan beste estatu kide batek emandako inportazio-baimenaren bitartez sartu den espezie batentzako berresportazio baimena eskatuz gero, inportazio-baimena eman duen kudeaketa-organoari egin beharko dio kontsulta kudeaketa-organoak. Batzordeak erabakiko ditu kontsultarako prozedurak eta hark esango du zein kasutan den ezinbestekoa kontsulta hori egitea. Erregelamendua osatuz funtsezkoak ez diren elementuak aldatzeko onartutako neurri horiek, 18. artikuluko 3. paragrafoan aurreikusitako kontrol-dun arautze-prozedurari jarraiki hartuko dira".

b) 7. paragrafoko b) idatz-zatiaren lekuan ondoko testu hau jarriko da:

"b) Kudeaketa-organo bati a) idatz-zatian aipatzen diren neurriak jakinarazten bazaizkio, hark, bere oharrekin batera, Batzordeari jakinaraziko dizkio, eta Batzordeak, egoki irizten badu, dagokion espeziearen esportazioari murrizketak ezartzeko gomendatuko du 18. artikuluko 2. paragrafoan xedatzen den arautze-prozedurari jarraituz".

3) 7. artikulua honela aldatuko da:

a) 1. paragrafoko c) idatz-zatiaren lekuan ondoko testu hau jarriko da:

"c) Batzordeak ezarriko ditu espezie bat itxian jaio eta hazitakoa den edo artifiziaiki sortua den zehazteko irizpideak, espezie hori merkataritza-helburuetarako sortua ote den zehazteko irizpideak, eta b) idatz-zatian aipatzen diren xedapen bereziak. Erregelamendua osatuz funtsezkoak ez diren elementuak aldatzeko hartutako neurri horiek, 18. artikuluko 3. paragrafoan aurreikusitako kontrol-dun arautze-prozedurari jarraiki hartuko dira".

b) 2. paragrafoko c) idatz-zatiaren lekuan testu hau jarriko da:

"c) b) idatz-zatian aipatutako agiria ez bada eman esportazioa edo berresportazioa baino lehen, espezimena atxiki egingo da eta, beharrezko izanez gero, konfiskatu egingo dute, non eta agiria ez den geroago aurkezten Batzordeak ezarritako baldintzak betetz. Erregelamendua osatuz funtsezkoak ez diren elementuak aldatzeko hartutako neurri horiek, 18. artikuluko 3. paragrafoan aurreikusitako kontrol-dun arautze-prozedurari jarraiki hartuko dira".

c) 3. paragrafoaren ordean testu hau jarriko da:

"3. Jabetza pertsonalak eta etxeko tresnak

4. eta 5. artikulua gorabehera, berorietan xedatutakoa ez da aplikatuko Erkidegoan sartzen diren hildako espezimenen kasuan, ez eta A-tik D-ra bitarteko eranskinetan aipatzen diren espezieetatik eratorritako espezimenen eratorrien kasuan, baldin eta jabetza pertsonaleko gauzak eta etxeko tresnak badira eta Erkidegoan sartzen badira edo bertatik esportatzen edo berresportatzen badira; betiere, Batzordeak emandako xedapenak bete beharko dira.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

Erregelamendua osatuz funtsezkoak ez diren elementuak aldatzeko hartutako neurri horiek 18. artikuluko 3. paragrafoan aurreikusitako kontrol-dun arautze-prozedura betetz hartuko dira".

d) 4. paragrafoaren ordez, testu hau jarriko da:

"4. Erakunde zientifikoak

Ez da derrigorrezkoa izango 4., 5., 8. eta 9. artikuluetan aipatzen diren agiriak aurkeztea helburu komertzialik gabeko mailegu, dohaintza eta trukeetan, baldin eta zientzialarien eta dagokien estatu-tako kudeaketa-organoei erregistratutako erakunde zientifikoaren artean egindakoak bada eta herbario-tako espezienez eta museo-tako espeziemen kontserbatu, lehortu edo euskarri batean txertatuz xedatzen bada edo landare biziez xedatzen bada; betiere, espeziemen horiek 18. artikuluko 2. paragrafoan xedatutako arautze-prozedurari jarraituz egindako etiketa eraman behar dute, edo beste herrialde bateko kudeaketa-erakunde batek emandako antzeko etiketaren bat."

4) 8. artikuluan, ondoko testu hau jarriko da, 4. paragrafoaren lekuan:

"4. Batzordeak 3. paragrafoan ezarritako baldintzak oinarritzat hartuta, salbuespen orokorrak ezar ditzake 1. paragrafoan ezarritako debekuentzat. Horrez gain, 3. artikuluko 1. paragrafoko b) idatz-zatiko ii) tartekiko xedapenak kontuan hartuta, A eranskinean aipatzen diren espezieei buruzko salbuespen orokorrak ere ezarri ahal izango ditu. Erregelamendua osatuz funtsezkoak ez diren elementuak aldatzeko hartutako neurri horiek 18. artikuluko 3. paragrafoan aurreikusitako kontrol-dun arautze-prozedura betetz hartuko dira. Salbuespen horiek bat egingo dute fauna eta flora basatia babesteko Erkidegoko gainerako legeetan ezarritako eskakizunekin".

5) 9. artikuluan, testu hau jarriko da, 6. paragrafoaren lekuan: Batzordeak espeziemen biziak edukitzeko edo horiek lekualdatzeko mugak ezar ditzake, 4. artikuluko 6. paragrafoan xedatutako murrizketek espezie horren eragiten badute. Erregelamendua osatuz funtsezkoak ez diren elementuak aldatzeko hartutako neurri horiek 18. artikuluko 3. paragrafoan aurreikusitako kontrol-dun arautze-prozedura betetz hartuko dira".

6) 11. artikuluan, ondoko testu hau jarriko da, 5. paragrafoaren lekuan:

"5. Batzordeak baimenak eta ziurtagiriak emateko epeak ezarriko ditu. Erregelamendua osatuz funtsezkoak ez diren elementuak aldatzeko hartutako neurri horiek 18. artikuluko 3. paragrafoan aurreikusitako kontrol-dun arautze-prozedura betetz hartuko dira".

7) 12. artikuluan, ondoko testu hau jarriko da, 4. paragrafoaren lekuan:

"4. Kasu berezietan eta Batzordeak xedatutako irizpideekin bat eginez, kudeaketa-organoei baimena eman dezake Erkidegoan sartzea, esportatzea edo berresportatzea 1. paragrafoan xedatutakoa betetz izendatutakoak besteko aduanabulegoa batean izapidetzeko.

Erregelamendua osatuz funtsezkoak ez diren elementuak aldatzeko hartutako neurri horiek 18. artikuluko 3. paragrafoan aurreikusitako kontrol-dun arautze-prozedura betetz hartuko dira".

8) 15. artikulua honela aldatuko da:

a) Honela aldatuko da 4. paragrafoa:

i) a) idatz-zatiko azken esaldiaren ordez beste hau jarriko da:

"Batzordeak zehaztuko du zein informazio jakinarazi behar den eta nola aurkeztu behar den, 18. artikuluko 2. paragrafoan xedatutako arautze-prozedurari jarraiki".

ii) c) idatz-zatiko azken esaldiaren ordez beste hau jarriko da:

"Batzordeak jakinarazi behar den informazioa zein den eta informazio hori nola aurkeztu behar den zehaztuko du 18. artikuluko 2. paragrafoan xedatutako arautze-prozedurari jarraiki".

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

b) 5. paragrafoaren ordeztu, testu hau jarriko da:

"5. Eranskinen aldatetarik prestatu ahal izateko, estatu kideetarako agintari eskudunek beharrezkoa den informazio gutzia eskainiko diote Batzordeari. Batzordeak zer informazio behar duen zehaztuko du, 18. artikuluko 2. paragrafoan xedatutako arautze-prozedurari jarraiki".

9) 18. artikulua honela aldatuko da:

a) 3. paragrafoaren ordeztu, testu hau jarriko da:

"3. Paragrafo honi erreferentzia egiten zaion kasuetan, 1999/468/EE Erabakiko 5 bis artikuluko 1. paragrafotik 4.era bitarteko paragrafoak eta 7. artikulua izango dira aplikatzekoak, eta 8. artikuluan xedatutakoa beteko da".

b) Paragrafo hau gehituko da:

"4. Paragrafo honi erreferentzia egiten zaion kasuetan, 1999/468/EE Erabakiko 5 bis artikuluko 1. paragrafotik 4.era bitarteko paragrafoak, 5. paragrafoko b) idatz-zatia eta 7. artikulua izango dira aplikatzekoak, eta 8. artikuluan xedatutakoa beteko da.

1999/468/EE Erabakiaren 5 bis artikuluko 3. paragrafoko c) idatz-zatian eta 4. artikuluko b) eta e) idatz-zatietan aurreikusitako epeak hilabete batekoak, hilabete batekoak eta bi hilabetekoak izango dira hurrenez hurren".

10) 19. artikulua ordez, testu hau jarriko da:

"19. artikulua

1. 18. artikuluko 2. paragrafoan xedatutako arautze-prozedurari jarraiki, Batzordeak hartuko ditu 4. artikuluko 6. paragrafoan, 5. artikuluko 7. paragrafoko b) idatz-zatian, 7. artikuluko 4. paragrafoan, 15. artikuluko 4. paragrafoko a) eta c) idatz-zatietan eta 5. paragrafoan, eta 21. artikuluko 3. paragrafoan aipatzen diren neurriak.

Batzordeak erabakiko du 4. artikuluan, 5. artikuluan, 7. artikuluren 4. paragrafoan eta 10. artikuluan aipatzen diren agiriak nolakoak izan behar duten, 18. artikuluko 2. paragrafoan xedatutako arautze-prozedurari jarraiki.

2. Batzordeak hartuko ditu 4. artikuluko 7. paragrafoan, 5. artikuluko 5. paragrafoan, 7. artikuluko 1. paragrafoko c) idatz-zatian, 2. paragrafoko c) idatz-zatian eta 3. paragrafoan, 8. artikuluko 4. paragrafoan, 9. artikuluko 6. paragrafoan, 11. artikuluko 5. paragrafoan eta 12. artikuluko 4. paragrafoan aipatzen diren neurriak. Erregelamendua osatuz funtsezkoak ez diren elementuak aldatzeko hartutako neurri horiek 18. artikuluko 3. paragrafoan aurreikusitako kontrol-dun arautze-prozedura betetz hartuko dira.

3. Batzordeak ondorengo gaietarako dagozkien baldintzak eta irizpideak ezarriko ditu:

a) 4. artikuluan, 5. artikuluan, 7. artikuluko 4. paragrafoan eta 10. artikuluan aipatzen diren agiriak emateko baldintzak eta irizpideak eta agiri horien baliozkotasunari eta erabilerari dagozkion baldintzak eta irizpideak.

b) 7. artikuluko 1. paragrafoko b) idatz-zatiko i) tartekian aurreikusitako egiaztagiri fitosanitarioen erabilerari buruzko baldintzak eta irizpideak.

c) Behar denean, espezimenak markatzeko prozeduren ezarpenetarako baldintzak eta irizpideak, espezimen horiek identifikatzeko eta ezarpenak betetzeko lagungarri izan daitezkeenak.

Erregelamendua osatuz funtsezkoak ez diren elementuak aldatzeko hartutako neurri horiek 18. artikuluko 3. paragrafoan aurreikusitako kontrol-dun arautze-prozedura betetz hartuko dira.

4. Beharrezkoa denean, Batzordeak neurri osagarriak hartuko ditu Hitzarmenean parte hartu zuten alderdiek egindako Konferentziaren irizpenak, Hitzarmenaren Batzorde iraunkorraren erabaki eta gomendioak, eta Hitzarmenaren Idazkaritzaren gomendioak aplikatu ahal izateko. Erregelamendua osatuz funtsezkoak ez diren elementuak aldatzeko hartutako neurri horiek 18. artikuluko 3. paragrafoan aurreikusitako kontrol-dun arautze-prozedura betetz hartuko dira.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

5. Batzordeak A-tik D-ra bitarteko eranskinetako aldaketak egingo ditu, Hitzarmenaren parte hartu zuten aldean Konferentzian hartutako erabakien ondorio diren A eranskinetako aldaketak izan ezik. Erregelamendua osatuz funtsezkoak ez diren elementuak aldatzeko hartutako neurri horiek 18. artikuluko 4. paragrafoan aurreikusitako kontrol-dun arautze-prozedura betez hartuko dira".

11) 21. artikuluko 3. paragrafoko sarrerako esaldiaren ordean ondoko testua idatziko da:

"3. Erregelamendu hau indarrean jarri baino bi hilabete lehenago, Batzordeak, 18. artikuluko 2. paragrafoan ezarritakoa betez eta Zientzia Ikuskarpeneko Taldeari kontsulta egin ondoren:"

2. artikulua

Indarrean jartzea

Europar Batasuneko Egunkari Ofizialean argitaratzen denetik hogeit hamar egunera jarriko da indarrean Erregelamendu hau.

Erregelamendu honetako atal guztiak nahitaez bete beharrekoak dira, eta Estatu kide bakoitzean zuzenean ezartzekoak izango dira.

Estrasburgon emana, 2009ko apirilaren 23an.

Europako Parlamentuaren izenean,

Lehendakaria

H.-G. Pöttering

Kontseiluaren izenean,

Lehendakaria

P. Nečas

[1] C 211 EO, 2008.8.19koa, 45. or.

[2] Europako Parlamentuaren irizpena, 2008ko irailaren 23koa (oraindik Egunkari Ofizialean argitaratu gabea) eta Kontseiluaren Erabakia, 2009ko martxoaren 23koa.

[3] L 61 EO, 1997.3.3koa, 1. or.

[4] L 184 EO, 1999.7.17koa, 23. or.

[5] L 200 EO, 2006.7.22koa, 11. or.

[6] C 255 EO, 2006.10.21ekoa, 1. or.